

# Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2001eko uztailak 20 ● 218. zka.



## Udaltzainak, herriko zaindariak

Iturririk iturri: Roberto Gutierrez • Iritzia: Ugutz Usandizaga • Kirolak: Herriko pilotariak

*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano  
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia  
Tel.: 77 11 30  
ARRASATE

**Abuztuaren**

**13tik 27ra**

**ITXITA**

Araba Ibilbidea

20550 ARETXABAETA


Industrialdea F-0-4

Tfnoa.: 943 79 18 44

Faxa: 943 79 29 41


E-mail: [info@eguzkigraf.com](mailto:info@eguzkigraf.com)

*Ondo pasa  
oporrak eta  
Andramaixak*



**EGUZKIGRAF**

## Oporretan danok gustora egoten gare, baina hala ta be badaukie bere alde txarra. Zer da oporretan bape be gustetan ez jatzuena?



**Jesus del Fresno**

Txarrik ez daukie, baina oporretan kotxiekin istripu ugari egoten die. Bestela, txarrena, aguro pasetan diela eta herrixe hutsik geraketan dala.



**Elena Martinez**

Niretako denbora librie bai, baina umiek egun dana etxien eukitta lan gehixau eukitten dot. Bestela niretako uda ala negua bixek igualak izaten die.



**Ekaitz Oihanguren**

Ez naz oporretan faten, baina hemen gelditxute be diru asko gastetan da. Gainera, egualdi txarra ein ez-kero herrixen ez da denpora pasetako ezer egoten.



**Lole Pavo**

Niretako oporrek ez daukie ezer txarrik, dana ona izeten da. Desiatzen nau aurtten be oporrak hartu eta denbora libre apur bat eukittek.



**Juan Mari Urrutia**

Bero larrei itten dau, horixe da bakaziñuetan txarrena. Nik ez dot bape be ondo aguantetan temperatura beruek.



**Mari Carmen Lopez de Armentia**

Ez daukie alde txarrik. Nik oporrak, egun gutxi, baina lanik ein barik pasetako hartzeitxut-eta.

## Aretxagazeta

218. zenbakia. 2001eko uztailaren 20an.  
Durana 11, 151 postakutxatila.  
ARETXABALETA.  
Tel: 943 79 86 21.  
Faxa: 943 77 18 54  
e-mail: aretxagazeta@goiena.com

**Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

**Lehendakaria:** Edorta Mendieta.

**Erredakzio-kontseilua:** Mireia Urribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre, Ana Hidalgo, Fernando Berrizbeitia.

**Erredakzio arduradun eta kazetariak:** Amagoia Lasagabaster, Iratxe Bengoa eta Mirari Altube.

**Publizitatea:** Ziortza Martin

**Kolaboratzaileak:** Mikel Arroibe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguilu, Amaia Berezibar, Murruxiko mendi elkarte, Zaria mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

**Banatzzaileak:** Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

**Inprimategia:** Eguzkigrif, Koop. Elk.  
Tirada: 1.500 ale.  
Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da.  
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxabaletako Udala,  
Gipuzkoako Foru Aldundia eta  
Eusko Jaurlaritzako kultura  
sailaren laguntza

## BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroibe

Aretxagazeta

■ **ERROTABARRI PARE-KO BIDEA ZABALIK** Atzerapenarekin baina bukatu dituzte dagoeneko Errotabarrri baserri pareko lanak. Portasolgo jaietarako zabaldu zuten Atxabaltatik Eskoriatzarako bidea. Hala ere, oraindik bideko marra zuriak margotu barik daude. Hauek laster batean jarriko dituzte. Lanak urtarilaren amaieran hasi ziren. Trenbideko paretatik atzeratu eta bidearen eskumakaldean espaloia jarri dute Ederlaneko zubiraino. Lanak egin bitartean trafikoa Ibarra futbol zelaiaren atzealdetik biderratu dute. Espaloia, oinezkoek gune honetan zuten arrikuagatik jarri da.



*Iaz munduko herrialde desberdinetatik bidalitako postalak iritsi ziren*

## Bidali zuen postalak aurten ere Aretxagazetara!

Urtero moduan, Aretxagazetak opor hauetan postal lehiaketa egingo du. Herri-tar edo irakurle guztiok parte hartu dezakezue lehiaketa honetan. Egin beharreko bakarra Aretxagazetara postal bat bidaltzea izango da, besterik ez. Ez dugu, agurrik edo testurik eskatuko. Beraz opor

hauetan edonon egonda ere bidali postaltxo bat 151 posta kutxatilara edo Durana 11 helbidera. Postalean jarri zuen izena eta telefono zenbakia. Irailean, jasotako postal guztiakin zozketa egingo da Aretxagazetan. Irabazleak bi lagunendako afaria izango du doan herriko jatetxeren batean.

**PIPIAK DURANA KALEKO ETXEBIZITZA BATEAN** "Silofagos" izeneko pipiak azaldu dira Durana kalean, 44. zenbakiko etxebizitzan. Oraindik, ordea, ez da zehaztu zenbaterainokoa den egindako kaltea eta noraino zabaldu diren. Izan ere, pipiek, barrutik jaten dute egurra eta begi bistan ez da ezer ikusten. Honen aurrean, pipiak atzeman eta hiltzen aditua den enpresa garbitzailea hartuko da etxebizitza hori eta ingurukoak begiratu ditzen. Silofagos pipi horiek laster batean ugaritu eta zabalitzen badira ere momentuz arazoa ez da larritzekoa.

Lehenengo fase honetan udaleko hirigintza sailak koordinaketa lanak egingo ditu auzokide eta enpresa garbitzailearen artean, eta arazoa nondik datorren ezagutu ostean, auzokideak eurak izango dira zein neurri hartu erabakiko dutenak.



**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 5


Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

Lyonel Arquero

Dekorazioa:


Soraya Arquero



Loramendi 1, • Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**Aretz**  
taberna

Markole, 5  
Tel.: 943 79 20 14



## SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24  
20550 ARETXABALETA - Tel.: 616 965 795



## ■ EUSKARAREN EGUNA UDALAKUETAN

Urtero moduan udalekuetakoek euskararen eguna ospatu zuten. Arratsaldean jolasak izan ziren nagusi plazan. Ohiturari jarraituz ume zein begiraleak baserritar jantzi ziren eguna ospatzeko. Edarto pasatu zuten gainera. Batek baino gehiagok faltan botako ditu udalekuak hauek bukatzen direnean.

## ■ ANDRAMAIXETAKO KARTEL IRAGARLEAK

Gurutze Mujika margolariak irabazi du aurtengo jaietarako kartel lehiaketa. Gurutzek akrilikoz eginiko margo bat egin zuen. Bertan pandero eta akordeoi-az gain, elizako irudi txiki bat ere azaltzen da.

Zorionak!

Aurtengo lehiaketan maila altua izan da. Horren adierazgarri dira ondoko kartelok.



# Loramendi kirolak

INTERSPORT®

Zure oporretarako material guztia

2.490

11.995  
Goretex

9.995

2.750

5.995

9.995

San Andres eta Garbati kalean • ARRASATE

## Oporretan joan aurretik Andramaixetako ospakizunak gertu



Aurten ere Te de los Puertosekin egingo da herri bazkaria plazan

Honezkero gehienok udako oporrak non pasako dituzuen pentsatzen zaudete. Baina, herritik alde egin aurretik hona hemen Andramaixak gustuko dituzuenentzako aurtengo festetako ekitaldirik garrantzitsuenak. Jai batzordeak aurkeztutako egitarauan ez dago berrikuntza handirik. Hala ere, beti moduan, herritar

guztiei zuzenduriko hainbat ekitaldi egingo dira aurten ere.

### Kale antzerkia

Urtero moduan, nagusi zein gatzetxoentzako antzerkia egingo da kalean. Ekitaldi horiek gainera, arrakasta handia izaten dute festetan. Horregatik aurten, lehenago ere herriko jaietan

animazio bikaina jarri zuen Hankagorri antzerki taldea gonbidatu dute jai batzordekoek. Hankagorrik "urbasako astronautak" antzezlan eskainiko du abuztuaren 17an. Bestelako arte ikuskitunik ere egongo da. Abuztuaren 15ean Euskal Herriaren sekulako arrakasta lortu duen Aukeran dantza taldeak "Sutargi" izeneko dantza emanaldia eskainiko du.

### Musika mota ezberdinak

Jaietan giro onena musikak jartzen du, duda barik. Andramaixetan adin eta gustu guztientzako musika izango da. Tikitixa, Trintxerpeko banda, Auskalo taldearekin berbera... aukera beti moduan bakoitzak egingo du. Gazteek galdu ezin duten kontzertua, barrez, abuztuaren 16an txosnetan egingo dena izango da. Orainarte rock kontzertuak egin dira gune horretan, baina aurtengoa guztiz bestelako

emanaldia izango da. Hemendik At taldeak dantza egiteko ekitaldi paregabea eskainiko du.

Gainontzean, urteroko ekintzak errepikatuko dira. Herri bazkaria, sokamuturra, bolo txapelketa, txirringulari lasterketa, pilota partiduak eta Euskal Presoak Euskal Herriratzeko manifestazioa egingo dira besteak beste. Azkenengo egunean noski, herriko koadrilek jarriko dute animazioa.



Iazko koadriletako bat

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

**M**obiliario  
**A**RENAZA

• ALTZARIAK  
• DISEINUA  
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**ARETXABALETA**  
**ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETA

**ANDRA**  
**MARI**

Aholkularitza

- Fiskala  
- Kontablea  
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26



**AZKARATE**  
aroztegia

943 76 47 19 eta 610 88 40 20

ateak • leihoak  
horma-armairuak  
tarimak • parketak

LANTOKI BERRIA  
LABEGARAIETAKO INDUSTRIALDEAN



**IBARRA**  
estankoa

PRENTSA ETA  
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

**Marti**

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72

Laugarren sei hilekoa

**%5,00**

Hirugarren sei hilekoa

**%4,50**

Bigarren sei hilekoa

**%4,25**

Lehen sei hilekoa

**%4,00**

Zure interesak hazi... eta hazi egingo dira

**% 4,48 UTB**

2 urterako gordailua . milioi 1 pezetatik aurrera (6.010,12 euro)

Interesak sei hilean behin likidatuko dira. Interesak kapital higigarriaren errendimendutzat hartuko dira eta, beraz, % 18ko atxikipena aplikatuko zaie.

Eskaintza honek 2001-07-27ra arte balio du. Euskadiko kutxak 15 eguneko epea emango du pentsatzeko, nahi izanez gero, eragiketa bertan behera uzteko. Informazio gehiago: 901 333 444 / [www.cajalaboral.com](http://www.cajalaboral.com)

**Aurrezki Gorakorra.**

Interes-tasa sei hilean behin handituko dizun inbertsioa.

Zurekin  
elkarlanean

  
**CAJA LABORAL**

# Portasolgo jaiak giro bikainean ospatu ziren

Eguraldiak lagundu ez arren giro bikainean ospatu ziren aurtengo Portasolgo jaiak. Asteburuan jende ugari hurbildu zen Loramendi eta Portasol aldera. Ea ba hurrengo urtean ere horrelaxe ospatzen ditugun jaiak.



*Ezkutaleku polita aurkitu zuten ezkerreko gaztetxo hauek. Hala ere buruhandia bertaraino heldu zen.*



*Zer ote dabil haur txikia pentsatzen buruhandia pare-parean duela?*



*Portal barruan hezi eta guzti, hauek bai torero bikainak! Jesulin, El Cordobes eta Espartaco*



*Heziak kamioi ondoan bakarrik ez, kotxearen bueltan ere jarri behar izan zituzten aurten, despistaturen batek hortxe utzi zuen autoa eta. Batzuk ondo aprobetxatu zuten haren babes.*



**M**

**MEMESA**

**Industri hornidurak**

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19  
ARETXABAETA

**OSKAR  
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4

**ITURGINTZA**

**J.J**

*Jose Jabier Iturre*

**URA, GASA ETA KALEFAZIOA**

943 79 07 34


**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tel: 943 79 01 28



*Robertok 17 urterekin utzi zuen Aretxabaleta EEBBtara joateko. Han, saskibaloiren erreinuan, unibertsitate mailako talde batean jokatzeko du. Hala ere, 21 urterekin, Robertok argi dauka etorkizuneko saskiratze onena ikasketekin lortuko duela.*



## Roberto Gutierrez

### Saskibaloia jokalaria EEBBetan

■ **Noiz eta zertara joan zinen EEBBetara ?**

■ Orain bost urte joan nintzen Minesotara, 17 urterekin hain zuzen. Nire helburua saskibaloian jokatzeko zen, baina ez nituen nire ikasketak alboratu utzi gura, badakit etorkizunean garrantzitsuak izango direla. Horregatik oinarrizko eskola bukatu, eta orain unibertsitatean ari naiz Telekomunikazio ikasketak burutzen, beka baten bitartez.

■ **Eta saskibaloia dago-kionez zer egin duzu?**

■ Lehenengo bi urteetan Minesotako High School mailan aritu naiz. Gero unibertsitatean joan nintzenez, Tennesseeko taldean sartu nintzen. Aurten, barrez, Minesotara bueltatu naiz eta denboraldi bikaina egin dugu. Nazio

mailan, unibertsitatean ar- tean, egiten den txapelketan bigarren postuan gelditu gara, 28 partidu irabazi eta bakarria galdu dugugu liga guztian.

■ **Nolako da han egiten duzun bizimodua?**

■ Goizeko bostetan jaikitzen gara entrenamenduetarako, korrika pixkat egin eta pisuak altxatzen ditugu gehienbat. Gero zuzenean gosaldia eta eskolara joaten gara. Horren ondoren, berriz ere entrenamendu saio bat egiten dugu. Arratsaldean jokalariorik 3 orduz ikasten egon beharra daukagu. Kirola eta ikasketak horixe da gure bizimodua.

■ **Horrelako prestakuntzarekin jokalaria ona izango zara, ez da horrela?**

■ Aurten taldea oso ondo

ibiliko da eta horrek asko lagundu dit. Nik neuk ere ez dut denboraldi txarra egin, baina goraitzekoa da talde moduan egin duguna. Gainera, datorren urtean taldeko jokalaria bat NBARA joango da.

■ **Nola bateratzen dituzue saskibaloia eta ikasketak?**

■ Gogorra da, izan ere biak batera eta ondo eraman behar dituzue. Ikasketak gainditu ezean ez dizute jokatzeko uzten, eta jokatzeko ez baduzue beka kentzen dizute. Horregatik jokalariorik irakasle bereziak jartzen dizkigute. Gure abantaila horixe da, azterketa egunean partidua baduzue, beste egun batetan jartzen dizute proba. Hala ere, inori ez diote ikasgaia ondo jakin barik aprobatazen.

■ **Zer nolako beka duzu?**

■ Niri emandako bekarekin ikasketek gain, etxebizitza ere ordaintzen didate. Horregatik, behin baino gehiagotan esan ohi dut saskibaloia ordaintzen dituela nire ikasketak.

■ **Zein diferentzia dago hango eta hemengo bizimoduaren artean?**

■ Dena da desberdina. Hango kulturak ez dauka hemengoarekin zerikusirik. Beste pentsakera bat daukate eta horrek asko desberdintzen gaitu.

■ **Etorkizunerako planik?**

■ Lehenengo nire ikasketak amaitu gura ditut. Gero, argi daukat berriz ere hona etorriko naizela. Eskaintza batzuk jaso ditut, eta beharbada hemengo talderen batean jokatuko dut.

## Santa Ageda usadioaz zer?

Oinarte in dan Santa Ageda ohitturia mantentzia merezi dauen galdetutzat neure buruai askotan, eta egixe esan, ondo pentsau ostien erantzune topautzatela uste dot. Ohittura hori gaur egun ez da ezebe. Lehenau ilusinoz itten zan dana gauzak dien moduan iñez, gaur egun, barrez, gero eta txarraure doie gauzie.

Aurten udalak itxiz gero ni izengo naz Santa Ageda mutil bat eta gauzak ikusitta zelan doiezen ez dot uste ohitturie dalako urtengotenik. Gaur egun, gazteixiendako kriston moskorrak hartzeko egunak die, eta egun normaletan ez dozun itten gauzak eitteko egunak be bai. Lehenau be holaxe izeten zan, baina beste giro baten. Askotan kinttuak ez die faten baserri danetara, ezta etxe danetara be. Horrez gain urtetik urtera gero eta apurketa handixauak egoten die. Ezta rarue Atxabaltako herritarrak gutaz txarto pentsetie, askok ez dauielako Santa Ageda mutiletan len sortzen zan ispirituan sinisten.

Batzun artien eta denboraz hasitta, uste dot aurten ohitturia berreskuratu ingouela, edo horixe da nik daukoten asmua. NiK oso gatxa ikusten dot aurten dana ondo urtetia, baina datorren urtien eta hurrenguen jarraiketant badaue oin urte batzuk zauen ohitturia berreskuratu ingouela uste dot.

Gero hor dau etxaflero eta apurketa kontue, baina ados jarri ezkeron nik uste kinttuok gurau douela ohitturia aurrera atara eta juergatxuak botatie. Jakina, danok in izan dauien moduen ganberrokeixan bat ingou, baina ze generazinok etzauen ingo holakoik? azkenien danok indou zeezer. Baina ohitturia hor mantendu bidala ados nau, bai udalaz eta bai herritarrokin.

Ugutx USANDIZAGA



**“ARINSA”**

**Aretxabaletako industrialdea S.A.**

Basabe poligonoa “EO-10”  
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

*Okindegia - Gozolegia*


*Aretxabaleta*

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina



Martin Garai udaltzain buruak bulegotik zuzentzen ditu udaltzainen zereginak.

# Udaltzaingoaren zereginak

***Batzuetan tokatzen ez zaien lanak eginarazi gura izaten dizkiegu eta hurrengoan euren lana behar bezala ezin beteta ibiltzen dira. Ez da gero samurra hiru udaltzain horientzat euren lana betetzea, batetik, ez daukatelako behar besteko baliabiderik eta bestetik, herritarrei aurre egin beharra izaten dutelako.***

Kotxe bat txarto aparkatuta dagoela, txakur bat jabe barik jendearen atzetik dabilela, herri barruan kotxearekin istripua izan dugula, norengana jo behar dugu? Udaltzaingorengana, noski. Lan hauek guztiak eta beste horrenbeste betetzea, oster, ez

da samurra behar besteko baliabiderik ez dagoenean, eta horixe gertatzen da Aretxabaletan.

**Udaltzaingoaren zereginak** Aretxabaletak gaur egun hiru udaltzain dauzka. Martin Garai udaltzainburua, Alberto Zillaurren eta

Jose Nuñez. 1982an, Martin eta Alberto lanean hasi ostean, bost udaltzain ere egon ziren, eta orduan, Martin ondo gogoratzen da, gauetan ere lan egiten zutela. Gero ertzaintza sortu zen, eta politikoek udaltzainen zereginak beteko zituztelakoan murriztu

egin zuten udaltzain kopurua eta hiru izatera pasatu. Herriko zeregin gehienak, oster, bai lehen eta bai orain, udaltzaingoaren eskuetan daude eta ertzaintzak beste betebeharrak batzuk dauzka. 1992ko uztailean Euskal Herriko poliziari buruzko legea

onartu zen legebiltzarrean eta bertan garbi zehaztu ziren udaltzaingoaren betebeharrak. Udalerriko agintariak babestea eta haien eraikuntzak zaintzea, herri barruko zirkulazioa antolatu, seinalizatu eta zuzentzea, ordenantza eta bandoak jakinaraztea, eta baita ingurugiroari kasu egiteko indarrean dagoen legedia betearaztea ere, istripuak, hondamendiak edo ezbehar publikoak gertatzen direnean laguntzea, lege hausteak eragozteko, leku publikoak zaindu eta manifestazioetan ordena mantentzen laguntzea, eta gatazka pribatuetan laguntzea izango liriteke zereginik garrantzitsuenak.

hurrengoan arratsalde, eta Martin goizez eta arratsalde egoten da. Gauean eta aste bukaeratan ez da lanik egiten, zapatu goizetan izan ezik. Udaltzaingoa ez dagoenean arazoren bat suertatuz gero, ertzaintzaren jotea beste irtenbiderik ez dago.

Hau jakinda, aurreko legegialdian ertzaintzarekin hitzarmena sinatu zuen udaltzaingoa. Hilean behin elkartzeko ziren Aretxabaleta eta Arrasateko udaltzainburu eta alkateak, Arrasateko ertzaintzaren komisaldegiko arduradun batekin, eta Eskoriazta, Gatzaga eta Aramaio-ko alkateak ere joan ei-

ziren gonbidatu gisa. Kordinaketa komisio horretan herrietako eta orokorrean bailarako arazoak aztertzen ziren, baita udaltzainek bete ezin dituzten lanak ertzaintzaren uztea adostu ere. Udaltza aldaketarekin, ostera, batzar horiek bertan behera geratu ziren, nahiz eta hitzarmenak indarrean jarraitu. "Momentu honetan berez guri tokatzen zaizkigun hainbat zeregin betetzen ditu ertzaintzak, manifestazioak zaintzea, herri barruko istripuak argitzea..., baina nekatzen diren egunean geure gain hartu beharko ditugu guztiak" dio Martinek. Ez da samurra izango, ordea, ba-

liabideak hobetu beharko dira lehenengo horretarako.

Udaltzain gehiagoren beharra da momentu honetan arazorik haundiena Martinen esanetan. "Aste bukaeratan ere zerbitzua ematea ezinbestekoa dela iruditzen zait baina horretarako udaltzain gehiago beharko liriteke". Mila biztanleko udaltzain bat izatea tokatzen ei da kalkuluen arabera, beraz, gure herrian sei bat izan beharko genituzke eta momentu honetan erdia dago. Inguruko hainbat herrietan udaltzain kopurua haunditzen hasita daude, eta Arrasaten esaterako, gau ez eta aste bukaeratan ere lan egiten dute. "Deban edo Soraluzen adibidez sei bat udaltzain daude, ni bostekin konformatuko nintzateke errelebu bakoitzean bi eta bat egun guztian orain bezala".

Martin eta Alberto lanean hasi zirenetik 19 urte pasatu dira eta Josek, berriz, 27 urte darama. Urte

### Baliabide eskasak

Zereginak asko badira ere, dituzten baliabideak kontuan hartuta moldatu behar dira eguneroko lanean herriko hiru udaltzainak. Alberto eta Josek errelebuan lan egiten dute, aste batean goizez eta

## "Aste bukaeratan ere zerbitzua ematea ezinbestekoa dela iruditzen zait"



hauetan guztietan lan egiteko era aldatu egin dela diote hirurek, baina ez dute inolako ikastarorik egin berrizteko. "Herri barruan gertatzen diren kotxe istripuen argiketa lanak geuk egin beharko genituzke, baina ni neu ez naiz gai ikusten. Izan ere horretarako batetik, nola egin jakin beharko genuke, eta bestetik bi udaltzain beharko lirateke behar bezala lan egiteko" dio Albertok.

### Eguneroko zeregina

Aretxabaleta herri lasaia da eta hiruren esanetan ez da bitxikeria haundirik gertatzen. Ordenantza eta

bandoak jakinarazi, isunak jarri, herriko trafikoa eta egiten ari diren obrak zaindu eta asko gehiago egitera ez dira heltzen. Egiten dutena egiten dutela sarri entzun behar izaten dituzte jendearen kexa eta haserreak: "Behar direnean sekula ez daude, sarri entzun behar izaten dugu, hala ere okerragoa da isuna jartzeagatik haserre eta bere onetik aterata datorren jendea" dio Albertok. Argi dago jendaurreko lana ez dela beti samurra izaten. Eta lana ondo betetzeko baliabideak ez daudenean okerragoa izaten da.



## Herriko udaltzainak




Martin Garai 1982an hasi zen udaltzain lanetan eta urte berean udaltzain buru izendatu zuten. Udaleko KIUBeko arduraduna ere bada, bailarako bulego bakarra, eta azken aldiak lanez gainezka dabil bai lan batean bai bestean. Herritarrek batzuetan udaltzaingoaren zereginak eta ertzaintza-

renak ez dituztela garbi dio eta horrek nahastea sortzen e du. Jendearekin haserretu beharra izatea, berri txarrak ematea edo zigorrak ezartzea inoren gustukoa ez izan arren, udaltzainaren lana dela eta halaxe onartzen du Martinek.

Datorren urtean udaltzain gehiago izango diren itxaropena dauka, lana behar bezala bete eta herritarrei zerbitzu egokia eman ahal izateko "gu ez baikara ez supergizonak, ezta superudaltzainak ere" dio udaltzain buruak.

Alberto Zillaurren Martinekin batera hasi zen lanean orain hemeretzi urte, sarrera azterketa gainditu ostean, hamabost egun egon ziren Gasteizko udaltzainekin ikasten. Urte hauetan guztietan lan egiteko era baino egoera aldatu dela dio, Aretxabaleta asko hazi da, kotxe kopuru bikoitza edo hirukoitza dago, ..., eta horrek lana ugaritu die. Hala eta guztiz lanbide honen alderdirik txarrena jendeari aurre egin beharra da "oso zaila da herrikoa, bertakoa, izanda udaltzain ona izatea, herritarrek ezagutzen gaituztenez

etxera deitzen digute, lanetik kanpo gaudenean etortzen dira..." dio Albertok. Gainera jendeak gero eta errespetu gutxiago dietela dio, baina ez bakarrik udaltzainei gauza guztiei orokorrean, norberak gura duena egiteko gero eta joera haundiagoa baitauekagu.



gero, barrez, udaltzaina beti txarra, beraz, ezin da gustora lan egin". Goitik behera zaintzen du herria kotxearekin, baina honek ere baditu hamabi urte eta ez dabil batere ondo.

Zazpi alkate ezagutu ditu eta azkenengo urteetan honen menpe daude. Garai batean, oster, udaltzainek euren zinetotzia zeukaten eta Josek faltan botatzen du hori "batez ere geure artean hika mikak sortzen badira konpontzeko".



Jose Nuñez galiziarra da. Hiru hilabeterako sartu zen eta hogeita zazpi urte daramatza udaltzain lanean. Hainbeste urte ostean nekatuta dago, batez ere oso esker txarreko lanbidea delako, "norbaiti ez dabilela zuzen jokatzeko esanez gero segituan haserretzen da. Isunak jarriz



## Piraguismoa

Urkulun piraguan ibiltzeko baimena onartu da. Murruxiko elkarteko piraguismo sailak Urkulun piraguan ibiltzeko eskaera luzatu zion Ur Patzuegoari, eta honek bere baiezta eman du. Hala ere, baldintza batzuk bete behar dira Urkulun piraguan ibili ahal izateko. Erabiltzaileak Murruxikoko piraguismo arloan federatutako txartela edukitzeaz gain, txartela aldean eraman behar du piraguan dabilen bitartean.



## Futbito

Datorren astean amaituko da udako futbito txapelketa. Oraindik egun zehatzik jarri ez den arren, datorren astean amaituko da udako futbito txapelketa. Guztira hamairu talde ari dira jokatzeko eta horietatik hiru besterik ez dira herrikoak. Gehienak Arrasateko taldeak dira eta bakar bat Aramaiokoa. Bihar, zapatua, partiduak jokatuko dira goizez eta arratsaldez. Goizean bi partidu egongo dira eta arratsaldean hiru.



## Txirrindularitza

Andramaixetan korrituko du Asier Atxak. Espainiako txapelketatik bueltatu ondoren, eta deskantsu egun batzuk hartu eta gero, Asier Atxak herrietako karrerak korrituko ditu, batez ere jaietako itzuliak. Abuztuaren 16an Andramaixetako txirrindulari proban izango dugu. Elitezko 23 urtetik beherako txirrindulariek korrituko dute bertan. Aurten hirugarren aldiz korrituko du Atxak. Iaz 8. izan zen, eta postu hori hobetu gura du aurten.



## Mendia

Alberto Iñurrategik hamairugarren 8.000koa. Alberto Iñurrategi eta Jon Beloki Gasherbrum I mendiko tontorrera iritsi ziren uztailaren 8an. Igoera garrantzitsua izan zen Albertorentzat, izan ere, bidean anaiaren pioleta aurkitu zuen, eta bere adierazpenetan, gora igotzeko indarrak eman zizkion horrek. Hau hamairugarren zortzimilakoa da Albertorentzat, eta Annapurna bakarrik gelditzen zaio 14ak egiteko.

## Felix Iñurrategiri omenaldia egingo zaio uztailaren 28an


Uztailaren 28an Felix Iñurrategiri omenaldia egingo zaio herrian. Egun horretan Felix hil zela urtebete bete da, eta mendizalearen heriotzaren urteurrenean Udalak eta herritarrek omenaldi xume bat eskaini gura izan diote. Eguna mendi ibilaldi batekin hasiko da goizeko 9:30ean. Ekitaldi nagusia, barrez, eguerdiko 12:30ean izango da udalaxe osteko lorategian. Txa-

lapartak emango dio hasiera omenaldiari. Jarraian, Angel Bergaretxe alkatearen agurrarekin batera, Don Antonio abareak udaletxe osteko lorategian jarriko den Felixen oroigarria bedeinkatuko du. Loramendi dantza taldeko dantzariak eta herriko bertsolariak izango ditugu ondoren. Jon Ander Loidi, Jon eta Aitor Sarasua eta Jon Iñaki Izarzelaiak izango dira lan horre-

tan arituko direnak. Ekitaldiari amaiera, Aretxabaleta abesbatzak emango dio. Omenaldia zapatuan izango den arren, aurreko astean zehar Felixen inguruko argazki erakusketa bat egongo da ikusgai Murruxiko mendi elkartearen lokalean.

**Felix Iñurrategi lorategia**  
Mendizale haundia izan dugu Felix. Anaia Albertorekin

batera munduko gailurrik altuenak zapaldu zituen, eta Euskal Herriko mendizaletasuna goian utzi. Horregatik herriak bere bihotzean gorde gura izan du mendizale haundi honen oroimena. Omenaldiarekin batera, harrizko oroigarri bat jarriko da udaletxe osteko lorategian, eta leku horrek Felix Iñurrategi lorategia izena izango du hemendik aurrera.



Felix Iñurrategiri omenaldia egingo da uztailaren 28an

## Bigarren txapelkunak

Soraluzek edo Aretxabaletak norbaitek izan behar zuen txapelkun Gipuzkoako herri arteko pilota txapelketan eta oraingoan Soraluze gehiago izan zen finalean, 2-1 irabazi ondoren.

Herritar ugari hurbildu zen Atano III.nera finala ikustera. Lehenengo partiduan Soraluze jaun eta jabe izan zen. Bigarren partiduan, erabakiorra zenez, ikuskizun haundia sortu zuen. Soralu-

zetarrek ondo izerditu behar izan zuten Haritz Igartuari eta Odei Oyoni irabazteko. Azkenekoa Errasti anaiek irabazi zuten, ohorezko puntua lortu zuten.

Badirudi datorren urtean tokatzen zaiela gurei txapelkun izatea. Orain bi urte laugarren izan ziren, iaz hirugarren eta aurten bigarren. Datorren urterako esperantzak gordeko ditugu hor-taz?



Finala jokatu ondoren ataratako argazkia

1) Zein balorazio egiten duzue herri arteko pilota txapelketan bigarren gelditu ondoren?

2) Eta datorren urtera begira, zein asmo dituzue?




**ANDONI ALTUBE** (15 urte)

- 1) Oso urduri egon nintzen finalean, eta galdu arren, horra heltzea ere ez da gutxi izan eta esperientzia polita izan da.
- 2) Datorren urtean jubenetan egongo naiz, eta ez dakit herri arteko txapelketan jokatu dudana.



**HARITZ KORTABARRIA** (16 urte)

- 1) Finalera iritsi garelako oso pozik nago. Galdu egin genuen, baina ez ziguten hain erraz irabazi, ondorioz ohorezko puntua eman ziguten.
- 2) Jubenetan egongo gara, eta jokalaria asko izango gara maila horretan. Kadeteetan, barrez, jokalaria gutxi egongo dira.



**HARITZ IGARTUA** (16 urte)

- 1) Aurten hirugarren aldiz jokatu dut herri artekoan, baina lehenengo finala izan da. Oroitzapen bikaina gelditu zait.
- 2) Ez dakit datorren urtean jokatu dudana ala ez. Aurrera Vitoriara noa futbolean jokatzerara, eta segurutzat ez dut pilotan jarraituko.



**ODEI OYÓN** (17 urte)

- 1) Ondo ibili gara eta finala gogorra izan den arren, ez ahazteko moduko txapelketa izan da. Neka-neka egin da bukatu nuen.
- 2) Datorren urtean txapelketa jokatzea espero dut, eta gainera irabaztea tokatzen zaigu.



**IBON ERRASTI** (28 urte)

- 1) 2-1 galdu arren, gustura gelditu naiz, ondo jokatu dugulako. Era berean, bi herrietako pilotariok eta ikusleek partiduaz gozatu genuela uste dut, eta hori da garrantzitsuena.
- 2) Datorren urtean finalean egotea espero dugu.



**UNAI ERRASTI** (28 urte)

- 1) Eurak irabazi arren, bi taldeok oso parekatuta ibili ginen, eta guk ere indartsu gaudela erakutsi genuen.
- 2) Datorren urtean ez dakit nortzuk jokatu dugun. Nagusietan pilotari gehiago ere bagaude, eta gehien eman dezaketenek jokatu dute.

*Valdepeñasen (Ciudad Real) jaioa da, Leioan soziologia ikasten du, eta Matikuan lanean dihardu astebukaeretan. Javier Sevillak hogeita lau urte ditu, eta hemen gustura dagoen arren, bere familia eta herria faltan botatzen ditu.*

## Javier Sevilla

### "Oraindik ez naiz hemengo paisajea ikustera ohitu"



#### ■ Non jaio zinen?

■ Valdepeñasen, Ciudad Realeko probintzian.

#### ■ Eta zer dela eta etorri zara Euskal Herrira?

■ Soziologia ikasten ari naiz hemen.

#### ■ Eta nolatan Matikuan lanean?

■ Aretxabaletako eta Eskoriatzako lagun batzuek esan zidaten zerbitzaria behar zutela Matikuan, eta hementxe nago.

#### ■ Gustura zerbitzari lanetan?

■ Bai, lana ez zait gehiegi gustatzen, baina, oso gustura nago Matikuan, oso atseginak izan dira nirekin. Hasieran euskaraz ez nekielako oso txarto pasatzen nuen, jende gehienak euskaraz berba egiten zidalako. Orain hobeto moldatzen naiz, hitz batzuk ikasi ditut eta.

#### ■ Non bizi zara?

■ Amorebietan.

#### ■ Zelan doaz ikasketak?

■ Aurten lehen urtea egin dut, eta dena gaintu dut.

#### ■ Gogorra da ikastea eta lan egitea?

■ Bai, ikasleek astebukaerak erabiltzen dituzte lanak egiteko, eta nik okupatuta dauzkat. Hala ere, azterketa sasoiaren astebukaera batzuk libre uzten dizkidate ikasi ahal izateko.

#### ■ Zer gurago ikastea ala lan egitea?

■ Lana egitea gurago dut, ni ikasten ari naizen ikasketekin zerikusia duen lana izaten bada behintzat.

#### ■ Oso desberdinak gara euskaldunak eta zure jaioterrikoak?

■ Bai, hango eta hemengo kultura desberdina denez, gai-nontzekoan ere desberdinak gara.

#### ■ Eta paisajea?

■ Hura lehorra eta laua da. Hau berdeagoa eta menditsua. Oraindik nire begiak ez dira hemengo paisaje ederra ikustera ohitu.

#### ■ Zure herriko ardoa ezaguna da.

■ Bai, baina fama txarra dauka, eta leku guztietan moduan, han ere ardo ona dago.

#### ■ Euskaldunotaz zein iritzi zenuen ona etorri aurretik?

■ Kanpoko jendeak estereotipo bat egiten du, eta orokorrean imagin okerra izaten da.

#### ■ Afizioak?

■ Atletismoan ibili izan naiz urte luzetan. Orain utzita daukat, baina betidanik gustatu izan zait. Kirolak eta irakurtzea gustatzen zait.

#### ■ Zein liburu irakurtzen ari zara?

■ Soziologiako liburua.

## BEIRALAN KRISTALDEGIA



- ◇ Komunerako altzari eta manparak
- ◇ Horma armairuak
- ◇ Beirate artistikoak
- ◇ Salarako mahaiak
- ◇ Beirate "fusing"ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea ☎ 943 79 81 78 / 6700997274



## MAPFRE

### Aseguroak

Errekararren, 3  
Tel.: 943 77 11 76



## FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak


Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56



## 14. IBILBIDEA

GATZAGAIN-JARINDO-SAN ADRIAN-KURTZETA-ASENSIO-  
APOTZA-ARETXABAETA

Luzera: 18,5 kilometro - Denbora: 4:30"



**G**atzagainera kotxez edo eta autobusez igoko dugu. Hango aparkamentuan kotxea utzi eta Gatzagain jatetxearen ezkerreko bidetik gorantz abiatuko gara. Laster txabola batera iritsiko gara, eta horren ondotik ezkerretara dagoen bidetik jarraituko dugu. Laster GR 11ko bideko marka txuri-gorriak ikusiko ditugu. Bide guztian zehar marka hauek jarraituko ditugu, eta beraz, ez dago galtzerik. Bazkaltzeko mahaiak dituen pagadi zoragarri bat pasatuko dugu. Aurrerago txabola bat dago, eta erdiko bidea jarraituko

dugu gorantz (hasieran bedarra dago bidean).

Berriz ere mahaiak dauden leku bat pasatuko dugu, eta gain batera iritsiko gara. Gogoratu beti marka txuri-gorriak jarraitzeaz, hori bai, kontuz ibili marka txuri-gorri horiek gurtzean eginak badaude. Horrek okerreko bidea adierazten du eta.

Gain horretatik Udalaiz, Etxango haitzak eta Anboto ederki ikusiko ditugu. Ibilbidean aurrera goazela bidegurutze bat baino gehiago izango ditugu, baina beti markak non dauden begiratu behar da, eta horiek

adierazten duten norabidea jarraitu. Momentu batean pista zabala bukatu eta senda bat hartuko dugu, alta tentsiozko posteak dauden leku batetik pasatuko gara laster (45").

Bidegurutze barri batera helduko gara, eta pinu artetik doan bidea hartuko dugu. Gain batera igo ondoren, jaisten hasiko gara, pinu eta ira artetik.

Beste bidegurutze batera helduko gara, erdian pinu zaila dago landatuta, eta guk eskumako bideari jarraituko diogu. Hasieran pinu arte ilun batetatik ibiliko gara, baina garbiguneak ere izango ditugu gero. Bidea denbora luze batean jarraitu behar da, erromara batera iritsi artean. Erromara pasatuta, pinudia bukatu eta garbigune bat dago. Gorbea eta Legutioko urtegiak ikusiko ditugu handik. Eskumatara jarraitu behar da bidea, erromararen ondotik. Aldatz gogor bat jaitsiko dugu, eta lokatzgune batera iritsiko gara. Hori pasatu beharra dago, bertatik edo goragotik. Hau pasatakoan erromara ondotik jarraituko dugu. Puntu batean erromararen eskumatara pasatu beharra dago, okerreko bidean txuri-gorri X bat markaturik dago, beraz, ez joan hortik. Erromara gurutzatu ondoren, oso bide ona dago pinu artetik. Jaisten hasiko gara, eta bidea jarraitu eta jarraitu egingo dugu. Garbigune batera iritsiko gara, eta txabola bat pasako dugu bertan. Bidea jarraituz laster ezkerretara San Adrian ermita eta iturri bat daude. Ur edarra ematen du iturri horrek, metal urrezkoa da. Iturrian eta San Adrianen geldialditxo bat egin daiteke, baina gero etorri garen bidetik jarraituko dugu behe-rantz. Lautada bat pasa ondoren, gero aldatz bat igo beharko dugu.



Nafarroa kalea, 4 b.  
Postakutxa 103  
Tfnoa.: 943 79 03 34


Kurtzetako bidea ikusiko dugu ezkeraldera, eta eskumatara dagoen txabola baten ondotik pasatuko gara. Kurtzetara iritsiko gara laster (2:30”).

Kurtzetan Asensiomendirako bidea adierazten digun seinalea dago, beraz, handik jarraitu behar da bidea ezkerredera hartuta. Grabilazko bidea da, baina zabala eta ondo ibiltzeko modukoa. Kurtzebarri aurrez aurre ikusiko dugu bide horretatik. Bidean aurrera jarraitu, laster Kurtzeta eta Durakogain jartzen duen seinalea ikusiko dugu, kontrako norabidean. Aurrera jarraituz Asensiomendira iritsiko gara, hau ezkerretara utziko dugu baina gura izanez gero tontorrera igo daiteke (3:00).

Asensiomendiren eskumatik doan bidea jarraituko dugu beherantz. Bidean Latango lauan Karmengo Ama Birgina dago, lore gorri eta txuriz apaindurik. Beherantz jarraitu eta Apotzan izango gara, handik Apotza Etxebarritik bueltan jaitsiko gara Aretxabaletara.



Leku zoragarria dago Gatzagainetik gora



Anboto eta Etxango haitzak



San Adriango ermita



Latango lauan Karmengo Ama Birgina dago



- ✓ Gidatzeko baimen guztiak jaso ditzakezun eskola
- ✓ Klase teorikoetara bereziki zuzenduriko maixua
- ✓ Zure ordutegira egokitzen gara

Informa zaituz:

Bulego ordutegia:  
goizez 10:00etatik ordu 1:00era  
arratsaldez 16:00etatik 20:00etara

Basabe Poligonoa F-0-7 •  
Tel: 943 79 64 50 ARETXABALETA





## Eguzkia, jaiak, oporrak, beroa... uda

Lau elementu hauek egokiak dira uda ona izan dadin. Eguzkia, bizi garen zulo txoko honetan, ez da samur heltzen, izan ere, nekez sartzen dira izpiak gure herri-  
ra.

Oporrak aitatu ditut, eta aldizkari honek ere irailera arte pertsiana jaitsiko du eta oporretan izango da. Zer uste zenuten, zuek bakarrik dituzuela oporrak?

Jaiak, barriz, gura adina izango ditu haietaz gozatu nahi duenak, tartean herrikoak. Jakina da ez direla egunik onenetan izaten, gehienak oporretan egoten direlako, hala ere, hemen gaudenok eta datozenak ondo aprobetxatuko ditugu. Aurtengorako ere jai batzordeak egitarau zabala antolatuko du, gazte zein nagusientzat nahi beste ekin-tza izango dira. Urteroko ekintzez gain, hainbat musika eta antzerki emanaldi izango ditugu. Hemendik At talde ezagunak kontzertua emango du Andra Mari bigarreanean. Badakizue aurtengo talde horren abestia? Bada, hasi ikasten! Mariachi Hauapango taldea ere izango da hirugarreanean, eta jakina koadrilaren eguna. Gehien animatzen duten koadrilaren

tzat sariak egongo dira. Beraz, animatu! Gu bitartean jaietako argazkirik politenen atzetik ibiliko gara.

Jai kontuak alde batera utzi barik, aurtengo egitarauaren azala **Gurutze Mugikak** egin du. Akrilikoz egin du margoa, eta laister izango duzue ikusteko aukera. Margolari bikaina dela erakutsi du Gurutzek. Hala ere, beste batzuk ere originalak izan dira, oso kartel politak aurkeztu dira aurtengoan.

Oporretan hortik zehar ibiliko direnentzat ohartxo bat eman gura dut: aurten ere **postal lehiaketa** antolatuko dugu, eta zozketa egingo dugu heltzen zaizkigun postal guztiekin. Jakinaren gainean zaudete orain guztiok, hortaz, bidali hona toki eder horietako postalak. Ah, oraindik onena aipatzea ahaztu zait, saria. Irabazleak bi lagunentzako afari eder bat irabaziko du, ez da makala!

Ni ere agurtzen hasi behar naiz, maleta gertu daukat, eta hegazkina ere kanpoan zain dago. Hala ere, ez pentsa oso urrutiko joango naizenik, Kurtzebarri puntara edo. Bestela, nork kontatu zuei irailean barriak? Amaitzeko, ondo ibili eta bueltan ikusi arte!!  
AGUR.


*M. J. Antezana*



### Maquis : La guerrilla vasca 1938-1962

Mikel Rodriguez

Txalaparta, 2001



### Maquis : Historia de la guerrilla antifranquista

Secundino Serrano

Temas de Hoy, 2001

Oraingo honetan bi libururen aipamena egingo dut, gai berdintsua darabiltelako eta gai honen inguruan orain arte oso material gutxi zegoelako. Armendarizen "Silencio roto" azken filmak gure historiaren pasarte ezkutu hauek berriz ere agerian jartzeko balio izan du eta aurten bertan argitaratu diren bi liburu hauek argi utzi dute gai honen inguruan piztu den interesa handia dela. Izan ere orain artean gai hau oso gutxi ikutu da; Guardia zibilak adibidez ez du bere artxiboetan dagoena argitaratu nahi izan eta dagoen informazioa Espainiako Partidu Komunistak daukan artxiboak eta garai hura bizi izan zuten protagonisten lekukotza dira.

Serranoren liburuan Euskal Herriko egoera oso azalirik erakusten da, izan ere Euskadiko mendietan Maqui gutxi egon baitzen, Frantziara joan eta etortzeko lekua zen batez ere. Rodriguezen liburuak beraz beste liburuan tratatzen ez dena ikusteko aukera ematen digu, Euskadiko egoera zertan zen hain zuzen.

Joseba Lopez de Armentia

### Putz aldizkaria

Apokaliftin elkarte



Dagoeneko Kaleratu da Putz aldizkari 9-10. aldizkaria. 100 orrialde ditu, eta herriko taberna batzuetan izango duzue ikusgai, edo kioskoetan salgai 450 pezetan.

## UZTAILA

## 21 DOMEKA

## ■ URTEERA

Zaraia mendi taldeak Kostaldera urteera egingo du.

## 24 MARTIZENA

## ■ SANTIAGO JAIK

Korueta Santiago jaiak hasiko dira arratsaldeko 18:00etan kanpai errepiketan.

## 25 EGUAZTENA

## ■ SANTIAGO JAIK

Goizeko 11:00etan kanpai errepikak. Eguerdiko 12:30ean meza nagusia eta ordu batean luntxa.

## 28 ZAPATUA

## ■ FELIX IÑURRATEGIRI OMENALDIA

Felix Iñurategik herritarren omenaldia jasoko du udaletxe osteko lorategian eguerdiko 12:30etik aurrera. Goizean mendi ibilaldi bat egingo da.



Emakumeek briskan egiten dute Korueta Santiagoetan

## ■ SANTIAGO JAIK

16:30ean mus eta briska txapelketak. 18:30ean txikiteoa. 20:00etan meza auzoko hildakoen alde gero auzo afaria eta dantzaldia Gardoki soinu-jolearekin.

## 29 DOMEKA

## ■ SANTIAGO JAIK

Arratsaldeko 17:30ean marrazki lehiaketa, haur jolasak eta txokolatada.

## 31 MARTIZENA

## ■ SAN IGNAZIO EGUNA

Muru alde elkartean San Ignazio jaiak ospatuko dituzte.

## OPORRAK:

Aretxagazetak oporrak hartuko ditu, eta iraila artean ez duzue beste zenbakirik izango. Irailean Andramaixetako ale berezia izango duzue esku artean. Beste barik, ondo izan oporretan eta ez ahaztu postala bidaltzeaz.

## ZINE KLUBA

## ■ THE MATRIX IZANGO DA UDA AURREKO AZKEN PELIKULA

Aurten barrinkuntza bat izan dugu gure artean, zine kluba. Eguenero kultur etxean pelikula bat ikusteko aukera izan dugu, eta uztailean filmak kanpora atera dira, aire zabalera. Arazo bat edo beste izan da, pelikulak herriko plazan botatzeko. Lehenengoan eguraldi txarra zela eta, ez zen pelikularik kanpoan bota. Hala ere, gainontzekoak herriko plazan eman dira, eta jendea erraz hurbildu da plazara. Azkenengo pelikula The Matrix izango da, hamar oskar jaso dituen film amerikarra. Datorren eguenean 20:00etatik aurrera botako da herriko plazan.

## OHARRAK

■ ABUZTUAN ARRASATEKO IGERILEKURA Aurreko urteetan moduan abuztuan kiroletxea itxita egongo denez, bazkideek Arrasateko igerilekua erabili ahal izango dute aurten ere.

ZINE KLUBA  
AIRE ZABALEAN

Uztailak 26

## - THE MATRIX (EEBB)

Urtea: 1999


Zuzendaria: Wachowski anaiak

Aktoreak: Keanu Reeves

Laurence Fishburne

Carrie-Anne Mos

\* Hamar oskar jaso ditu film amerikarrak.



Uztailean zehar zine kluba herriko plazan eguenean 22:00etatik aurrera ZATOZI!

## Zorion agurrak



Aitor Aranzabal  
Uztailak 7  
Zorionak Esther eta  
Ainhoaren partetik.




Eli Barandiaran  
Uztailak 16  
Koadrilakoen partetik zorionak.



Mikel Egia  
Barandiaran  
Uztailak 21  
Zorionak eta muxu  
bat zure lehenengo  
urtebetetzean. Etxekoak eta lagunak.



Araceli Herran  
Abuztuak 9  
Zorionak patatera.



Leire Velasco Garcia  
Abuztuak 15  
(2 urte)  
Zorionak aitita eta  
amaman partetik.

Sail honetan norbait zoriondu gura baduzu Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta 943 79 86 21 telefonora deitu.

## Txistuak • Txaloak

Idea ona izan du norbaitek oraingo honetan. Erreka-barren kalean zuhaitzak inguratzekeo jarrita zegoen porlanezko blokeak kendu dira, eta hemendik aurrera aparkatzeko arazo gutxiago izango da. Kale horretan aparkaleku ugari egon arren, ez zen batere samurra bertan kotxea uztea. Gidariak nahikoa komeri izaten zuten aldameneko kotxea edo zuhaitza ez jotzeko, eta tartean kendu barri diren porlanezko zatiak kontuan izan behar. Udalak **txalo** bat merezi du kasu honetan, traba horiek kentzeagatik. Aurrerantzean herrian egiten diren aldaketak hau bezala onerako izango diren esperantza dugu.



## Jaiotakoak

■ Iker Jimenez Molina  
Ekainaren 5ean.

■ Ekain Perez Borrego  
Uztailaren 7an.

■ Antton Unanue Alzola  
Uztailaren 8an.

## Hildakoak

■ Isidoro Arrese Alberdi  
Uztailaren 11n. 61 urte.

## Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

## Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

## Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

## Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



**E**

## Neska-mutilak plazan

erretratu zahar hau 1942. urte inguruan ateratakoa da. Uda aldean neska-mutilak plazan jolasean zebiltzala fotografoak erretratu polit hau atera zuen.

Atzean ikusten den etxea Santixena dugu. Ezagunak

ziren hango txokolate, gozoki eta argizaria. Santiago Abarrategiren alaba Maria Estefa eta bere senarra Eustakio Alkorta (alkatea) bizi ziren bertan. Eustakio izatez Laurgain baserrikoa zen, Aiakoa.

Argazkian ageri diren umeak honako hauek dira: **Dorleta Arana, kotxean daudenak, Arantxa Urzelai eta Begoña Arana, mutikoak Jose Jabier Urzelai, Jabier Axpe eta Francisco Jabier Urzelai.**

*Lubia*



ZAPATAK, ZAPATILAK  
GERRIKOAK  
ETA POLTSAK

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00  
ARETXABALETAK

Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 17 51  
*Mitartegorai*  
Gatetxea



**Bereziki:** Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia

IMANOL  
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Taberna eta jatetxeen gida


## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



**Kafetegia  
eta  
taberna**

**HAIZEA**

Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 60

## Express



Santa Kurtz. 16  
943 79 23 43

**zure gustoko giroa**

## Gurea taberna

*Eguneko menuak  
plater konbinatuak*

**GUREA**

Durana kalea • 943 79 20 64

## Govaran erretegia



**GOVARAN ERRETEGIA**

Solohaundi-25 ARETXABALETA • 943 79 68 57

## Arlutz taberna




MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

**Gustoko musika**

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa.: 79 90 00

**Zatoz gure musikaz gozatzera**

Mitarte, 9 • 943 79 92 01

## Hirusta jatetxea

**Zatoz gure sukaldean ezagutzera**



Ilargi plaza, 4 Tel.: 943 79 06 57

## Mendiola erretegia

**ESKORIATZA**



**Bazkariak  
eta afariak**

**Astelehenetan  
itxita**

Mendiola auzoa • Eskoriatza • 943 71 43 45

## Baster alde jatetxea



**SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN**

Galartza auzoa  
© 943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Izotz taberna

**Zure gustoko giroa**

**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

## Mitartegarai

**Mitartegarai**  
Jatetxea

Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 17 51



## Josu taberna

**Josu  
harategia  
taberna**

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1  
Tel.: 943 77 03 08




## Taberna Berri

**Taberna Berri  
jatetxea**



Durana, 26 • ARETXABALETA  
943 79 20 67

## Urbaltz taberna



**URBALTZ  
TABERNA**

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA

# NISSAN ALMERA TINO BERRIAK


## SUTAN JARRIKO ZAITU



**2.665.000**  
pezetatik aurrera




SEGURTASUNA



MULTI-LINK  
ESEKIDURA



MODULABILITATEA



Nissan Brake Assist

N.B.A BALAZTAK

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

**ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR**

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxe. 943 79 65 65.

aldibi@nortekar.com



Grupo  
**Nortekar**